

### A3

#### Joan gura dot ekustera...

Beste editore batzuek bestelakorik egin badute ere, ez dago zalantzarik hau dela poemaren ahapaldi-banaketa. Poema bat baino gehiago dira eskuizkribuan egitura bera dutenak (ikus, adibidez, A5, A8 eta A9): lehenengo ahapaldiak lau lerro ditu, eta horietako hirugarrena eta laugarrena errepika dira; gero, zortzi lerroko ahapaldiak datoz, eta horietako zazpigarrenean eta zortzigarrenean agertzen da berriz errepika. Errepikak berak ematen du, jakina, poemaren giltzarria: maitearen mespretxuak oinazea (eta heriotza!) dakarkion arren, maitea ikusi eta haren aurrean izan nahi du.

<1164v>	Joan gura dot ekustera nik on deretxadanari; <sup>1</sup> joan gura dot ekustera, hark hilte <sup>2</sup> naben gero <sup>3</sup> ni.	
	Lastimadurik joango nax amoreaz da <sup>4</sup> fedez, beti bere erruki naben <sup>5</sup> munduak eta jenteak. Ezin faltarik neidio <sup>6</sup> nik on deretxadanari.	5     10
	—Zu ekustera etortearren, <sup>7</sup> ene lindatxo maitea, penarik asko iragaro <sup>8</sup> dot egunean da gabea.— Hona etorri naxan azkero, <sup>9</sup> eskerrik asko Jaunari. Joan gura dot ekustera hark hilte naben gero ni.	15     20
<1165r>	—Ene fedeau handia da ta ondo tratadu nagizu; honeinbat <sup>10</sup> bider heriotzea zerren <sup>11</sup> emaiten didazu?— Ene lindea serbitzen bada, <sup>12</sup> kolpe batean hil nagi. <sup>13</sup>	25

<sup>1</sup> *on deretxadanari*: ‘maite dudanari’.

<sup>2</sup> *hilte*: *-n* galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*n*- hurrengo silaban) leloaren agerraldi guztietan.

<sup>3</sup> *hilte naben gero*: ‘hiltzen bainau, hiltzen nauenez’.

<sup>4</sup> *da*: ‘eta’

<sup>5</sup> *erruki naben*: ‘errukitu nazan, nitaz erruki izan dezan’.

<sup>6</sup> *Ezin faltarik neidio*: ‘faltarik ezin egin niezaioke’.

<sup>7</sup> *etortearren*: ‘etortzearren, etortzeagatik’.

<sup>8</sup> *iragaro*: ‘igaro, sufritu, jasan’; berez *igaro*-ren kausatiboa da.

<sup>9</sup> *naxan azkero*: ‘etorri bainaiz, etorri naizenez’.

<sup>10</sup> *honeinbat*: ‘honenbat, honenbeste’.

<sup>11</sup> *zerren*: ‘zergatik’.

<sup>12</sup> *serbitzen bada*: ‘egin nahi badu, egitea gogoko badu’.

Joan gura dot ekustera  
hark hilte nabere gero ni.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A3 – Joan gura dot ekustera... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

---

<sup>13</sup> *hil nagi*: ‘hil nazala’.